

Lan Hitzarmenaren negoziazio-saio berria

Atzo, maiatzak 31, berriro bildu zen hitzarmen berriko negoziazio mahaia. Aurretik adostutako dinamikari jarraituz, oraingoan Haur hezkuntzako 1. zikloaren inguruko gaiak jorratu ziren era sakonean. Gure hitzarmenean ziklo honen lan baldintzak nahiko prekarioak dira, eta, horretxegatik, sindikatuok proposamen anitz jarri genituen mahaiaren gainean. **steilasek** egindakoen artean, ondoko hauek berezi daitezke:

Jardunaldia eta soldatak

- Laguntzaile eta Goi-mailako Teknikaria: lanaldia HLE-koekin homologatu (1.390)
- Maisu-maistrak: lanaldia bigarren zikloarekin pareketu: 1.252.
- Hiru kategorietan ordu osagarriak aitortu (1/3)
- Ordutegiak egokitu, ez hasi goizeko zortziak baino lehen eta beti bi langile umeekin.
- Ikasle kopuruak hitzarmenean zehaztu.: 0 urteko geletan 8, urte lekoak 13, taldekatzea 1: (0 eta 1) 7, taldekatzea 2: (0, 1 eta 2) 10, 2 urteko geletan 18. Bikoizteko derrigortasuna, ratioak gaindituz gero.
- Hezitzaile kopuruak hitzarmenean zehaztu: Sehaska geletan: 1,5/7; 2/8. Urte lekoak: 1,5/12; 2/13. 2 urteko geletan: 2/18.
- Goi Mailako Teknikariak eta Laguntzaileak Hezkuntza-laguntzako espezialistekin parekatu soldata.
- Tutoretzako osagarria aitortu
- Dedikazio osagarria Goi Mailako Teknikariei eta Laguntzaileei aitortu

Precariedad y empleo

- Hiru kategoriak 1go Taldean sartu, irakasle izaera onartuz, 365 eguneko kontratua.
- Maisu-maistrak: Lehen tasuna 2. ziklora igotzeko ikastetxe bakantea izanez gero.
- Kontratatuta dagoen pertsonaren kategoria errealia onartu.
- Haur hezkuntzako 1go zikloko langileentzat jangelaren doakotasuna.
- Ordezkapenak: lehen egunetik bermatu.
- TEJI kategoriarekin kontratatuta dauden pertsonak maisu-maistra kategoriara zuzenean pasatuko dira Haur-hezkuntza Gradua edo antzekoa badute.
- Oporraldiak: irakasleenak bezalakoak.
- Aste Santuan eta Gabonetan atsedenaldiak dozenteen moduan.
- Haurdunaldi bitartean dagoen arriskuarengatik 24. astetik aurrera baja.

Kristau Eskolak zein IZEAk ez zuten proposamen zehatzik eraman. Ziklo honek galerak sortzen dituela behin eta berriro errepikatu zuten eta horregatik sindikatuei finantziario handiagoa eta 2 urtekoen gelen kontzertazioa eskatzera deitu gintuzten.

Bestetik eta **steilasek** eskatuta, 58 urte baino gehiagokoen murrizketa lektiboari buruz ere aritu ginen. ELAK proposatu zuen gaia era zabalean aztertzea –errelebo-kontratua eta beste aspektu batzuk barne- datorren ekainaren 21ean izango den bileran.

steilasek ez dio gaizki negoziazio-gaia zabaltzeari, baina bere kezka adierazi zuen beste atzerapen horrenagatik. Garbi gelditu da ez direla baldintzarik ematen datorren ikasturtean ezarri daitekeen akordio bat lortzeko.